

FUNTSEZKO JARDUERAK



Gure proiektua aurrera ateratzeko beharrezko gauzak zeintzuk diren jakitea da gauzarik garrantzitsuena.

Kontuan hartu behar den gauzetako bat, diseinua da. Diseinua gauza oso garrantzitsua da eta bezeroaren begietatik sartu behar dena. Gure kasuan, diseinu bat baino gehiago egingo ditugu, kolore guztietakoak eta adin guztientzako. Horrez gain, gure diseinua bezeroak esaten digun

arabera bideratuko dugu, hobekuntzak eginez gure hasierako produktuari.

Gure produktua bezeroei ahalik eta azkarren entregatzeko, banaketa enpresa batekin hitz egingo dugu. Garrantzi handia dauka bezeroak produktua haren etxean azkar izatea, osasun kontuekin hari garelako. Gure intentzioa, Espainia mailan produktua zabaltzea da, aurrerago, enpresa ondo badoa mundura zabalduko gara.

Bukatzeko, gure web orrialdean, bezeroentzako zati bat egongo da nahi dutena esateko: arazoren bat izanez gero komentatzeko, edozein gauza hobetzeko,... Bezeroekin harremanetan egongo gara egunero esate baterako.

Ikusten den bezala, jarduera garrantzitsuenak, bezeroekin erlazioa dute, bezeroak garrantzitsuenak direlako. Gure produktuarekin pozik badaude, gure produktuak fama ona hartuko du eta jende gehiagok erosiko du.